

Seme-alabei arduratsuak izaten irakatsi

Erantzukizuna erantzuteko abilezia da. Eskuarki onartuak dauden gizarte-arau eta aukeren mugen artean erabakitze gaitasuna alegia. Esan ohi da, ume bat arduratsua dela, bere ekintzen bidez, bere helburu propioak besteen beharrekin, modu sortzaile batean, koordinatzen dituen.

Gurasoek, beraien seme-alabei txikitatik zenbait betebeharrak ematen dizkietenean, arduratsuak izaten irakasten diete; betiere, beraien adina eta gaitasunei egokitutako beharrak ematen dizkietenean. Era berean, garrantzitsua da, gurasoek bere gain ez hartzea, aurretiaz beraien seme-alabei esleitutako betebeharrak. Izan ere, erantzukizunaren zentzua garatzean, seme-alaben autoestimua eta autonomia sustatzen eta bultzatzen ari gara. Horrela, arrakasta gehiago lortzen joango dira, arrakasta horien ondorio positiboekin etekina jasoaz batera.

Nola irakatsi seme-alabei arduratsu izan daitezela?

1. Umearen ahalmen-sentsazioa garatu. Ahalmen-sentsazioa barne hartzean, norbere bizian eragiteko behar diren baliabideak, aukerak eta gaitasunak eskuratzen dira.
2. Umeei erabakiak hartzen lagundu. Arduratsu izaten ikasi duten umeei ikasi ez dutenek baino erabaki hobeak hartzen dituzte.
3. Arauek eta mugak ezarri eta koherenteak izan. Arauek eta mugak seme-alabei segurtasuna ematen diete, modu antolatuan jokatzeko dutelarik. Ageriko arau argiak egon ezean, ez dago koherente izaterik. Umeei arauak eta mugak behar dituzte, aurretiaz ezarrita dagoena ezagutzeko (ordutegiak, jarduerak...) eta onartzen zaiena eta ez zaiena bereizteko. Horrez gain, ezinbestekoa izango da ere, arauak ez betetzeak izan ditzakeen ondorioez ohartaraztea.
4. Zereginak eta betebeharrak ezarri erantzukizuna sortzeko. Zereginak, nola, noiz eta nork egin behar dituen zehaztu beharra dago, antolatze gaitasuna eta norberaren baliabideak garatzeko.
5. Arbitrario ez izatea. Nahi duguna argitu behar dugu, seme-alabarengandik espero duguna modu errazean eta zuzenean komunikatu behar diegu.
6. Sariak ematea arduratsu izateagatik. Sariak, umeei baloratu, nahi edo behar dituzten gauzak dira. Arduratsu izateagatik saria jasotzen duten umeei (sari materiala, baina batez ere ez-materiala) apurka-apurka erantzukizuna eta sentimendu onak elkar erlazionatuta daudenaren kontzientzia garatzen dute eta, denborarekin, kanpoko sariak jasotzeko beharra edo nahia gutxitzen zaie.

Laburpena

Gurasoek, erantzukizun, eskubide eta erabakitzeko esparruak (hauek txikiak badira ere) dituzten pertsona independente gisa ikusi behar dituzte beraien seme-alabak. Horrezaz gain, beraien baloreak definitzen eta dituzten zailtasunak beraien sentimendu propioen arabera ebazten lagundu behar diete. Soilik horrela gara dezakete erantzukizunaren ideia.

Ainhoa Manzano Fernández Doktorea
Juan Luís Martín Ayala Doktorea
ETXADI
Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia